

2015eko irailaren 24a, osteguna

III. ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETA RAKO ZUZENDARIAREN IRAILAREN 14KO 38/2015 EBAZPENARENA

LANKIDETZA-HITZARMENA, OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO MINISTERIOAREKIN, KONTRATAZIO-PLATAFORMEN ELKARRERAGINGARRITASUNARI BURUZKOA

Madriilen, 2015eko uztailaren 21ean.

ELKARTU DIRA

Batetik, Ogasun eta Herri Administrazioetako idazkariorde Pilar Platero Sanz andrea, abenduaren 23ko 1853/2011 Errege Dekretuak izendatua eta Hitzarmen hau sinatzeko eskumena duena eskumenak Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioko organoei eskuordetzeko ekainaren 14ko HAP/1335/2012 Aginduaren 6. artikulua eskuordetutako eskumenei jarraiki.

Bestetik, Ricardo Gatzagaetxebarria Bastida, Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Finantzetako sailburua, lehendakariaren abenduaren 15eko 25/2012 Dekretuak (243. EHAA, abenduaren 17koa) kargu horretarako izendatua, eta Hitzarmen hau sinatzeko eskumena duena Jaurlaritzaren Kontseiluak 2015ko apirilaren 14an emandako Erabakian jasotako baimenari jarraiki.

ADIERAZI DUTE

Azaroaren 14ko 3/2011 Errege Lege Dekretuak onartutako Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren lehen artikulua ezartzen du sektore publikoaren kontratazioa arautu behar duela, lizitazioetan sartzeko askatasunaren, publikotasunaren, prozeduren gardentasunaren eta hautagaien arteko diskriminaziorik ezaren eta tratu-berdintasunaren printzipioetara egokitzen dela bermatzeko, lehia askea zaintzeko eta ekonomikoki onuragarriena den eskaintza hautatzeko helburuarekin.

Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren aplikazio-eremua bigarren artikuluan zehaztu da, eta horren arabera, hirugarren artikulua arabera sektore publikoak diren erakundeetako batek egindako kostu bidezko kontratuak dira sektore publikoaren kontratuak, edonolakoak izanik ere.

Jarraian, bigarren artikulua hirugarren idatzi-zatiak zera dio, testu bategina autonomia-erki-degoek eta haien lurraldeko toki-erakunde edo mendeko erakundeek egiten dituzten kontratuei aplikatzeko, azken xedapenen arteko bigarrean aurreikusitakoa hartuko dela aintzat.

Azken xedapenen arteko bigarren xedapen horretan jasotzen denez, oro har testu bategina oinarritzko legeria da, Konstituzioaren 149.1 artikulua babesean emandakoa, eta horrenbestez administrazio publiko guztiei eta haien mendeko erakunde eta entitate guztiei aplikatu behar zaie, artikulua jakin batzuk izan ezik, azken horiek ez baitira oinarritzko legeriatzat jotzen.

Lankidetzaren Hitzarmen honek Estatuko Administrazio Orokorren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko jardunak koordinatzea du xedetzat, Sektore Publikoaren Kontratazio Plataformaren eremu zehatzean.

Sektore Publikoaren Kontratazio Plataforma erabili eta zabaltzeko nahi dugu, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 334. artikuluan jasotakoari jarraiki, edozein kontratazio-organoren kontratatzaile-profilen euskarri gisa, edozein Administrazioaren mende egonik ere, eta Interneten bitartez lizitazio-deialdien eta haien emaitzen berri emateko eta egiten diren kontratuei dagokien zuzen garrantzitsutzat jotzen diren informazio osagarri guztiak eskaintzeko.

Autonomia-erkidegoetako eta Estatuko plataformen artean datuak elkartrukatzeko aukera, arazko garapenari dagokionez, merkatu-batasuna bermatzeko abenduaren 9ko 20/2013 Legearen hirugarren xedapen gehigarriaren bitartez arautu da dagoeneko, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 334. artikulua aldatuz, Estatuaren Plataforma zena Sektore Publikoaren Kontratazio Plataforma izendatuz, eta Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren hirugarren artikuluko lehen idatzi-zatian aipatutako erakunde guztiek nahitaez hura erabili behar dutela ezarriz.

Horrela erraztasunak eman nahi ditugu merkatu-batasuna bermatzeko abenduaren 9ko 20/2013 Legearen hirugarren xedapen gehigarria betetzeko. Honako hau ezartzen du Lege horrek:

«Azaroaren 14ko 3/2011 Errege Lege Dekretuak onartutako Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 334. artikuluan araututako Estatuko Kontratazio Plataformari Sektore Publikoaren Kontratazio Plataforma esango zaio hemendik aurrera.

Plataforma horretan argitaratuko dira, kontratazio-organoen eskutik zuzenean edo administrazio eta erakunde publikoen informazioa eransteko gailu elektronikoekiko interkonexioaren bitartez, lizitazio-deialdiak eta haien emaitzak, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 3. artikuluko 1. idatzi-zatian jasotako erakunde guztiei dagokienez».

Aldez aurretik adierazitakoa ikusirik, administrazio publikoen arteko harremanetan nagusitu behar den elkarrekiko lankidetzaren esparruan eta Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen azaroaren 26ko 30/1992, Legearen 4. artikuluan ezarritakoa betez, bi alderdietako ordezkariak uste dute beren xedeak betetzeko oso onuragarria izango litzatekeela lankidetzaz-esparru bat ezartzea kontratazio publikoko gai horien eremuan.

Halaber, Ekonomia Iraunkorrari buruzko martxoaren 4ko 2/2011 Legearen 33. artikulua Administrazio Publikoen arteko lankidetzaz aurreikusitako du, gastu publikoaren arrazionalizazio eta euspenerako.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen hamahirugarren xedapen gehigarriak ezarritakoaren arabera, Estatuko Administrazio Orokorren eremuan, Ministerioko sailtetako titularrek eta lotutako edo mendeko erakunde publikoetako presidente edo zuzendariek 6. artikuluan jasotako hitzarmenak bideratzeko aukera izango dute, aurrekontu-araudiak ematen dizkien eskumenen barruan eta ezarritako izapideak bete ondoren, besteak beste eta nahitaez eraginpeko Ministerioaren edo Ministerioen txostenen berri emanez.

Gai horri buruzko araudia garatu arte, 1998ko uztailaren 3ko Ministro Kontseiluaren Erabakiak aldatutako 1990eko martxoaren 2ko Ministro Kontseiluaren Erabakian bildutako aurreikuspenak aplikatzekoak direla hartu beharko da aintzat, Hitzarmenen edukari eta sinatu aurreko onarpenerako prozedurari dagokienez.

Autonomia-erkidegoekin lankidetzaz-hitzarmenak egiteko eskumenei buruzko 1998ko uztailaren 3ko Ministro Kontseiluaren Erabakiak aldatutako Estatuko Administrazio Orokorren eta autonomia-erkidegoen arteko lankidetzaz-hitzarmenei buruzko 1990eko martxoaren 2ko Ministro Kontseiluaren Erabakiaren (biak ere BOEn argitaratu ziren, Administrazio Publikoetarako Estatu Idazkaritza desagertuaren Ebazpenetan, 1990eko martxoaren 16an eta 1998ko uztailaren 3an, hurrenez hurren) lehen atalak ezarri zuenez, Estatuko Administrazioaren eta autonomia-erkidegoen artean lankidetzaz-hitzarmenak sinatzeko Politika Autonomikorako Gobernu Batzorde Delegatuaren alde aurreko baimena behar da, eta zazpigarren atalaren 3. puntuak garai hartako Lurralde Administrazioetarako estatu-idazkariari behin-behineko baimena ematen dio hitzarmenak

2015eko irailaren 24a, osteguna

ezartzeko baldin eta Administrazio Publikoen Ministerio desagertuaren txostena aldekoa bazen, edota, alderdi formalei buruzko arazoak adierazi ondoren, arazo horiek guztiz konponduta bazen, Gobernu Batzorde Delegatuak behin-behineko baimen hori berretsi behar zuelarik bere lehen bilkuran.

Gobernu Batzorde Delegatuak ezartzen dituen abenduaren 30eko 1886/2011 Errege Dekretuak, laugarren xedapen gehigarriko 1. puntuan, Politika Autonomikorako Gobernu Batzorde Delegatu hori bertan behera utzi zuen.

Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioaren oinarrizko egitura organikoa garatzen duen urtarilaren 27ko 256/2012 Errege Dekretuaren 14.1 c) artikulua Autonomia Erkidegoetako eta Tokiko Koordinaziorako Idazkaritza Nagusiaren Autonomia Erkidegoekiko eta Tokiko Erakundeekiko Eskumenak Koordinatzeko Zuzendaritza Nagusiari ematen dio Estatuko Administrazio Orokorren eta Autonomia Erkidegoetako Administrazioen arteko lankidetzaren hitzarmenaren baimena eta erregistroa izapidetzeko eskumena.

Herri Administrazioen Estatu Idazkaritzaren Estatu Abokatutzari kontsulta egin zitzaion lankidetzaren hitzarmenaren baimentzeko prozedura berri bat arautu arte proiektu horiei aldi baterako eman behar zaien tratamenduaren inguruan, eta Estatuko Abokatutzari Nagusiari kontsulta egin eta kontsulta hori 2012ko martxoaren 9an eman ondoren, 2012ko martxoaren 15eko txostenean adierazi zuen 1990eko martxoaren 2ko Ministro Kontseiluaren Erabaki hori esanbidez edo isilbidez indargabetzen duen arau bat sortu arte, ezinezkoa dela Erabaki horretan lankidetzaren hitzarmenak sinatzeari lotuta (alde aurreko baimena betetzea eta abar) indargabetuta geratu izana Politika Autonomikorako Gobernu Batzorde Delegatua bertan behera geratu izanaren ondorioz, Erabaki horretan Estatuko Administrazioari eta Gobernuaren organoari buruzko erreferentziak Estatuko Administrazioaren eta Gobernuaren egungo egiturara egokitu beharra alde batera utzita, eta zentzu horretan uste du behin-behineko baimenari eutsi behar zaiola, haren ustez Autonomia Erkidegoetako eta Tokiko Koordinaziorako Idazkaritza Nagusiaren titularraren esku utzi behar dena, eta baimen hori berretsi beharra dagoela, txostenean jasotako arrazoen arabera une honetan Ministroen Kontseiluaren esku utzi behar dena.

2015. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorren abenduaren 26ko 36/2014 Legearen lehen xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraiki, Hitzarmen hau Aurrekontu eta Gastuetarako Estatu Idazkaritzari igorri zaio nahitaezko txostena eman dezan aurrekontu-egonkortasuneko edo zor publikoko helburua edo autonomia-erkidegoen gastuen araua betetzeari dagokionez, eta irizpena honako data honetan eman da 2015ko ekainaren 1ean.

Azkenik, Estatuko Administrazioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko Lankidetzarako Alde biko Batzordearen Erabakiak (195. BOEn argitaratu zen, 2014ko abuztuaren 12an) honako hau dio, hitzez hitz:

e) Merkatu Batasuna Bermatzeko Legearen hirugarren xedapen gehigarriak Sektore Publikoaren Kontratazio Plataforman argitaratzea xedatzen du, baina horrek ez du galaraziko lizitazio-deialdien eta haien emaitzen ondorioak indarrean hastea dagozkien aldizkari ofizialetan argitaratzen direnetik. Zentzu horretan, bi Administrazioek aukera izango dute deialdi horiek eta haien emaitzak Plataforman aldi berean argitaratzea bermatuko duen bitartekoa adosteko aukera.

2015-07-17ko Ministro Kontseiluaren Erabakiaren bitartez, Lankidetzaren Hitzarmen hau sinatzeko behin-behineko baimena berretsi da.

Horren ondorioz, bi Administrazio Publikoek erabaki dute Lankidetzaren Hitzarmen hau sinatzea, honako klausula hauei jarraiki:

KLAUSULAK

Lehenengoa.– Lankidetzaren hitzarmenaren xedea.

Hitzarmen honen helburua Estatuko Administrazio Orokorren, Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren artean lankidetzaren ezartzea da kontratazio publikoaren alorrean, Hitzarmen honetan ezarritakoaren arabera eta honako jardura hauek egiteko:

I.– Sektore Publikoaren Kontratazio Plataforma erabiltzea, kontratazio-prozesuei buruz informazioa ekartzeko Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenen eremuan.

A) Aplikazio-eremu objektiboa.

Hitzarmen honen helburua da, Sektore Publikoaren Kontratazio Plataformaren koordinazio-eremuan, sektore publikoko erakunde guztien lizitazio-deialdien argitalpena eta emaitzak informazio-sistema berean bateratzea, enpresa eta herritarrek Interneten bitartez informazio hori erraz eskuratzeko aukera izan dezaten.

B) Aplikazio-eremu subjektiboa.

Bi Administrazio Publikoek beren gain hartu dute hitzarmen honetatik eratorritako jardunak abian jartzea, Administrazio bakoitzaren eta haren mendeko erakundearen eskumenen eremuan.

C) Prozedura.

Proposamen hori aurrera eramateko, Estatuko Ondarearen Zuzendaritza Nagusiak eta Euskal Autonomia Erkidegoak, bakoitzaren helburuak bete ahal izateko garapen guztiak gauzatu dituzte, araudiaren, antolamenduaren eta teknikaren alorrean.

Lizitazio-deialdiei eta haien emaitzei buruzko informazioa eranstea, interkonexio-bitartekoaren bitartez.

Autonomia Erkidegoak bere mendekoak izaki bere plataforman bilduta dauden kontratazio-organismoetako kontratatzailearen profilak mantenduko ditu, eta Sektore Publikoaren Kontratazio Plataformari emango dio lizitazio-deialdiei eta haien emaitzei dagozkien argitalpen guztien berri, informazioa eranstea interkonexio-bitartekoaren bitartez.

Halaber, Sektore Publikoaren Kontratazio Plataformak Euskal Kontratazio Plataformari emango dio lizitazioetan eta gainerako informazioan sartzeko aukera, azken horrek informazio hori erabiltzaileei eskaintzeko aukera izan dezan.

Estatuko Ondarearen Zuzendaritza Nagusiak eta Euskal Autonomia Erkidegoak adostuko dituzte partekatu beharreko datuak, formatuen espezifikazio teknikoak, protokoloak eta informazioa elkartrukatzeko bitartekoak.

Sektore Publikoaren Kontratazio Plataformak eta Euskal Kontratazio Plataformak herritar eta enpresei lagunduko diete argitaratutako informazio guztiaren bilaketa globala egiteko eta interkontratatutako plataformetako argitalpenetan sartzeko lanetan.

D) Alderdien konpromisoa.

Bi Administrazioek adostu dute zerbitzua honako baldintza hauekin eskainiko dutela:

Estatuko Ondarearen Zuzendaritza Nagusiak eta Sektore Publikoaren Kontratazio Plataformarekin konektatutako Administrazio Publikoek informazioa eranstea adostuko dituzten zehaztutako funtzional eta teknikoaren erabilera onartzen dute bi Administrazio Publikoek.

Estatuko Ondarearen Zuzendaritza Nagusiak:

a) Sektore Publikoaren Kontratazio Plataforman informazioa eransteko interkonexio-sistemaren hainbat zehaztapen funtzional eta tekniko garatuko ditu, une honetan indarrean dauden elkarreragintasan-bitartekoei eta CODICE kodifikazioari jarraiki.

b) Euskal Autonomia Erkidegoaren sistema informatikoak Sektore Publikoaren Kontratazio Plataformarekin integratzeko euskarri teknikoa eskainiko du, garatutako zehaztapenei jarraiki.

c) Autonomia Erkidegoak jakinarazitako informazioaren osotasuna ziurtatuko du, behin zerbitzua abian jarri ondoren.

d) Zerbitzua 24x7 moduan eskuragarri izateko aukera ziurtatuko du. Zerbitzuko geldialdiak programatzeko aukera izango da lan-ordutegitik kanpo, erabiltzaileei gutxienez 48 ordu lehenago ohartaraziz, tartean justifikatutako arrazoiren bat izan ezean.

e) Euskal Kontratazio Plataformari baimena ematen dio herritar eta enpresei zerbitzu publikoak eskaintzeko informazio horren ustiapenean oinarrituta: harpidetza- eta alerta-zerbitzuak, administrazioaileen eta gainerako botere esleitzzaileen kontratu-jarduerari buruzko txostenak eta abar.

Euskal Autonomia Erkidegoak:

a) Antolamendu-neurriak hartuko ditu, araudia garatuko du eta beharrezko garapen informatikoei helduko die, Sektore Publikoaren Kontratazio Plataformari bere kontratazio-organoetako kontratatzailearen profilean edo bere plataformetan egiten diren lizitazio-deialdi eta haien emaitzei buruzko argitalpen guztien berri emateko, baita bere plataforman Sektore Publikoaren Kontratazio Plataformaren edukiak aurkezteko ere.

b) Bere kontratazio-organoetako kontratatzailearen profilean argitaratutako informazioaren eskuragarritasuna eta irisgarritasuna ziurtatuko du, Sektore Publikoaren Kontratazio Plataformaren esku jarritako loturen bitartez.

c) Euskal Kontratazio Plataformari baimena ematen dio herritar eta enpresei zerbitzu publikoak eskaintzeko informazio horren ustiapenean oinarrituta: harpidetza- eta alerta-zerbitzuak, administrazioaileen eta gainerako botere esleitzzaileen kontratu-jarduerari buruzko txostenak eta abar.

E) Lankidetzaren Hitzarmenaren atal horren kostuak.

Estatuko Administrazio Orokorrek guztiz doan eskainiko dizkio Euskal Autonomia Erkidegoari Sektore Publikoaren Kontratazio Plataformaren zerbitzuak.

Estatuko Administrazio orokorrak, Estatuko Ondarearen Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, honako kostu hauek hartuko ditu bere gain, bere giza baliabide eta baliabide teknikoak baliatuz, eta, hala badagokio, bere aurrekontu-kontsignazioen kontura eta dagozkion gastu-espeditentak izapidetu ondoren:

a) Euskal Autonomia Erkidegoak informazioa argitaratzeko aukera eta Euskal Kontratazio Plataformari Sektore Publikoaren Kontratazio Plataformaren edukiak bidali edo aurkezteko aukera errazteko beharrezkoak diren egokitzapenetarako garapen informatikoak.

b) Sistemen arteko interkonexio-sistemen zehaztapen funtzional eta teknikoen garapena, beharrezkoa denean.

c) Plataformaren erabilerari lotutako erakunde-erabiltzaileen euskarri-zerbitzua, edo sistemen interkonexioari lotutako euskarri teknikoa.

d) Sektore Publikoaren Kontratazio Plataformaren funtzionamendu egokia bermatzeko beharrezko zerbitzuak eta azpiegitura informatikoa mantentzea.

Nolanahi ere, Euskal Autonomia Erkidegoak honako kostu hauek hartuko ditu bere gain:

a) Hala badagokio, Sektore Publikoaren Kontratazio Plataformarekiko interkonexiorako bere informazio-sistemetan egin beharreko garapen informatikoak.

b) Interneten bidez edo SARA sarearen bidez Sektore Publikoaren Kontratazio Plataformarekin konektatzeko beharrezkoak diren komunikazio-zerbitzuak.

Bigarrena.– Argitaratzea.

Behin sinatu ondoren, Lankidetzaren Hitzarmen hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aldizkarian eta dagozkion Kontratazio Plataformetan ere argitaratu ahal izango da, baita beste edozein komunikabidetan ere.

Lankidetzaren hitzarmenari aldaketa bat egiten zaionean edota haren ondorioak bertan behera geratzen direnean ere, aldaketa horiek argitaratu beharko dira. Estatuko Ondarearen Zuzendaritza Nagusiaren Ebazpenaren bidez, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da honako klausula honen 4. atalean aipatutako indarraldiaren luzapena.

Hirugarrena.– Indarrean hastea, aldatzea, indarraldia eta amaiera.

1.– Hitzarmen honek sinatzen den uneaz geroztik izango ditu ondorioak, eta 5 urteko iraupena izango du.

2.– Hitzarmen honen xedeak betetzeko erraztasunak emateko, hitzarmena aldatzeko aukera izango da hitzarmenaren indarraldiaren edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek hori adosten badute.

3.– Hitzarmenaren amaiera ezin izango da iragarri indarraldiko urte bat igaro arte. Urtebetea igarotakoan hitzarmen osoaren edo zati batzuen amaiera iragartzeko aukera izango da, eta amaiera iragartzen den egunaz geroztik hiru hilabete igarotzen direnean amaituko da hitzarmena.

Hitzarmenaren amaiera iragartzeak ez ditu alderdiak salbuetsiko hitzarmenaren amaiera-iragarpenaren datara arte hartutako konpromisoak betetzeaz.

4.– Hitzarmenaren indarraldia beste epe baterako luzatuko da, lehen atalean aurreikusitako denbora berean, baldin eta, indarraldia amaitzen den unean, alderdietako batek haren amaiera iragarri ez badu.

5.– Hitzarmen hau honako arrazoi hauetako bat tarteko suntsitu ahal izango da:

a) Bi alderdiak ados jartzen badira.

b) Hartutako konpromisoak betetzeko egiaztatutako edo eratorritako ezintasuna, alderdien borondatearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik.

Laugarrena.– Jarraipen-erakundea edo batzorde mistoa.

1.– Lankidetzaren Hitzarmen honetan bildutako klausulak ongi betetzen eta kudeatzen direla kontrolatzeko, Batzorde Misto bat eratuko da, eta honako eginkizun hauek izango ditu:

1) Euskal Kontratazio Plataformaren konexioak eta funtzionamendua egiaztatzea Euskal Autonomia Erkidegoko Plataformari dagokionez.

2) Hitzarmen hau interpretatu eta betetzean sor litezkeen eztabaidak ebaztea

3) Hitzarmenaren funtzionamendu egokia bermatzeko baliagarri den edozein neurri aztertu eta proposatzea.

2.– Batzordeak lau kide izango ditu, bi Ogasun eta Herri Administrazioen Ministerioa ordezkatzuz, Estatuko Ondarearen Zuzendaritza Nagusiak izendatuak, eta beste bi Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun eta Finantza Sailburuordetzak izendatuta, eta Administrazio Publiko baten eta bestearen ordezkariak urtean behin txandakatuko dira Batzordearen lehendakaritzan.

3.– Batzordea gutxienez urtean behin bilduko da, edo lehenago kideetako batek eskatzen badu, eta beharrezkotzat jotzen diren aholkulari eta laguntzaile guztiek izango dute Batzordean parte hartzeko aukera.

4.– Batzordearen jardunari kide anitzeko organoen eraketa eta jardunerako arauak aplikatuko zaizkio, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritakoari jarraiki.

Bosgarrena.– Konpromisoak.

Sinatzaileek beren gain hartu dute legez aurreikusitako prozedurak izapidetzea, beharrezko erabakiak hartzea eta beharrezko garapen informatikoak ahalik eta zuzentasun handienarekin egitea, Hitzarmen honetan jasotako jardun guztiak aurrera eramateko eta aurreikusitako arau-xedapenak eta Hitzarmen honetan jasotako gainerako jardunak bete-betean garatzeko.

Seigarrena.– Izaera eta interpretazioa.

Lankidetzak Hitzarmen hau gauzatzen da Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 6 eta 8. artikuluetan ezarritakoaren babesean.

Azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 8.3 artikuluan ezarritakoa betez, Hitzarmen hau administratiboa da, eta haren erregulazioa antolamendu juridiko-administratiboari lotzen zaio. Hitzarmen honen interpretazioak edo betetzeak sortzen dituzten gatazkak Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari jakinaraztekoak eta haren eskumenekoak izango dira.

Lankidetzak Hitzarmen honek ez ditu azaroaren 14ko Errege Lege Dekretuak onartutako Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren xedapenak bete behar, haren 4.1.c) artikuluan ezarritakoaren arabera. Alabaina, haren betetze eta interpretaziotik erator litezkeen zalantza eta hutsuneak eskumeneko organoaren eskutik ebatziko dira, arau horretan jasotako printzipioak aplikatuz.

Adierazitako eta adostutako guztiarekin ados daudela berresteko, sinatzaileek, beren eskumenen esparruan, Hitzarmen hau sinatu dute, bi aletan.

Eusko Jaurlaritzaren aldetik,

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
RICARDO GATZAGAETXEBARRIA BASTIDA JAUNA.

Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioko aldetik,

Ogasun eta Herri Administrazioetako idazkariordea,
PILAR PLATERO SANZ ANDREA.